

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Bernardo Atxagaren hitzaldi batekin hasiko gaur arratsaldean Punto de Vista jaialdia

17 film eta 14 herrialde lehiatuko dira Baluartean datorren igandera arte, hilak 15

Lunes, 09 de febrero de 2015

Bernardo Atxaga idazleak dokumentalistek Ipar Euskal Herriari buruz eskaintako irudiaren gainean emango duen hitzaldi batekin hasiko da gaur arratsaldean, [Nafarroako Punto de Vista Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdia](#).

Bederatzigarren edizioa izango eta igandera arte, hilak 15, luzatuko da, Iruñean. 14 herrialdeetatik etorritako 17 film ariko dira lehian -9 film luze eta 8 labur-.


Ekitaldia gaur goizean aurkeztu da Baluartean, eta bertan izan dira jaialdiko zuzendari artistiko Oskar Alegria eta lehiaketako zuzendari exekutibo Ana Herrera, Bernardo Atxagarekin batera; Orson Welles-ek Ziburun filmatutako dokumentalen protagonista eta aktorea izan dira ere: Chris Wertebaker eta Beñat Toyos, hurrenez hurren.

Baluartean egingo da aurtengo [edizioa](#), eta lehiaketa bihar, hilak 10, hasiko da Atal Ofizialean lehiatzen diren lehen dokumentalekin.

Aurrez, gaur arratsaldean, 20:00etan, Bernardo Atxagak zinemaren historian Ipar Euskal Herria bisitatu duten dokumentalistek zuten begiradari buruz hausnartuko du; inguru horretako paisaiak eta ohiturak jasotzeko egindako bisitak ziren. Gai hori izango da, hain zuzen, **Chez les Basques**. **zikloaren** ardatz nagusia. Ekitaldi horretan, Wertebaker izango da Atxagarekin batera, eta hark gitarra-kontzertu labur bat emango du, Paz de Ziganda ikastolako abesbatzaren laguntzarekin; euskal kostaldean bizitako haurtzaroan ikasitako abestiak joko ditu. Baluarteko Bulevar aretoan egingo da ekitaldia, eta doan izango da, aurrez jaialdiko informazio-puntuari gonbidapena jaso ondoren (Baluarteko atondoan).

Lehen jardunaldia, otsailak 10

Jaialdiko inaugurazio-emanaldian **Descripción de una isla** (Alemania, 1979) dokumentala estreinatuko da. Rudolf Thome filmeko zuzendariak aurkeztuko du 20:00etan, Baluarteko Ganberako aretoan. Film etnografikoa da, Pazifiko hegoalderako urruneko irla batera iritsitako bost



Ezkerretik eskuinera: Lazcunza, Alegria, Wertebaker; Toyos, Atxaga eta Herrera, Baluartean.

alemananen istorioa kontatzen du, eta bertako biztanleen bizitzari buruzko argitalpen bat prestatzen da dute xede.

Biharko jardunaldian ere, *Blessed Be This Place* (Carl Olsson, 2013) eta *Mambo Cool* (Chris Gude, 2014) film luzeak proiektatuko dira 10:00etatik aurrera. Jaialdiko lehiaketaren barnean emango dira, aurten [Erdialdeko Eskualdea](#) izena hartu duena, eta atal horretan 14 herrialdeetatik etorritako 15 pelikula izango dira 2015ean. Jardunaldian zehar ere, jaialdiko beste atzera begirako batzuk hasiko dira: [Irlak](#), urruneko lekuetara heltzeko gizakiak duen grina islatu nahi duen 18 film topatuko dira bertan; jadanik aipatu dugun [Chez Les Basques](#), Ipar Euskal Herriko bizimoduak utzitako ondare dokumental garrantzitsua estreinakoz batuko dituen zikloa; eta [Margaret Tait: inspirar, filmar, exhalar](#), Eskoziako zinemagile eta poeta horren 19 film labur bilduko dira, eta Punto de Vistan haren azken pieza berria jasoko da: *Gallina significa miel. Poemas escogidos y ensayos sobre cine de Margaret Tait*. Ingeleseko bere poemak beste hizkuntza batera itzultzen diren lehen aldia da.

Bihar, asteartea, hilak 10, Baluarteke Harresiko aretoan, [The Darkness Collection](#) erakusketa zabalduko da. Jaialdiko zuzendari artistiko Oskar Alegriak bildutako 38 filmen bilduma bat da, zinemaren itzal eta iluntasunean egindako paseoa.

Otar Iosseliani eta Isidoro Valcárcel Medina zinemagileen presentzia

Ibilbide horekin batera eta astean zehar, Punto de Vistako atalak bi izen propioekin osatuko dira: [Otar Iosseliani](#) Georgiako zinemagilea izango da jaialdian, eta bi aldiz parte hartuko du bertan; izan ere, bost filmen ziklo bat protagonizatzeaz gain, *Euskadi été 1982* piezarekin parte hartuko du **Ches les Basques** zikloan. Iosselianiek ere *master class* bat emango du larunbatean, 11:00etan.

Heterodocsias atalak [Isidoro Valcárcel Medina](#)ren itzulera hartuko du *La Celosía* haren filmarekin, jatorriz Iruñeko Topaketa mitikoetan aurkeztutakoa, 1972an. Gainera, asteakenean, hilak 11, 22:30ean Valcárcel Medinari buruzko dokumentalaren estreinaldi mundiala aurkeztuko da: *No escribiré arte con mayúscula* (Luis Deltell, Miguel Álvarez-Fernández, 2014). Valcárcel Medinak ere, honako hitzaldi hau emango du ostiralean, 20:00etan, Bulebar aretoan: *Nueve secuencias sobre la pantalla*.

Aipagarria da ere, [X Films Proiektu](#)ak jarraitzen duela. Atal honek errealizadore gazteei babes ematen die, eta larunbatean, hilak 14, 20:00etan, Aitor Gametxoren *El otro mapa de Abauntz*, pelikularen estreinaldi mundiala egingo da. Zuzendari horrek irabzi zuen 2014ko X Films atala.

2015eko edizioa igandean amaituko da, 20:00etan, Ganberako aretoan, **John y Gena** filmarekin. Itsaso Arana sortzaile eszeniko nafarraren pelikula da, eta zuzeneko zinemaren ariketa bat egingo du; hala, pelikulari buruzko iruzkinak egingo ditu, zuzenean.

Ehun bat kazetari eta akreditatutako 73 hedabidea

Bederatzigarren edizio honetan, Punto de Vistak Baluarte egoitza ofizial bihurtuko du jaialdiko jarduera guztia eraikin bakar batean batzeko, eta iruindarregatik hurbil izateko. Ekitaldia berriz ere urtero antolatzeke apustua publikoak emandako babesarekin sarituta geratu da jadanik. Aurten, 73 hedabide akreditatu dira jaialdia jarraitzeko, sektoreko 95 profesional eta unibersitateko 102 ikasletik gora (Nafarroa, EAE, Madril, Bartzelona eta beste leku batzuetatik etorritakoak). Berriki estreinatutako Gazteriaren Epaimahaiak sari berezietako bat emango du, eta 47 gaztek osatzen dute. Jaialdiko taldea 16 boluntarioren laguntzarekin osatzen da.

Sarrerak Baluarteke leihatiletan eros daitezke honako ordutegi hauetan: 09:30etik 14:00etara eta 16:30etik 22:30era. Interneten ere eros daitezke [jaialdiko](#) eta [Baluarte](#)ko webguneen bidez. Bulevar aretoan antolatutako hitzaldiak eta mahai-inguruak doan dira, aurrez jaialdiko informazio-puntu gonbidapena jaso ondoren (Baluarteke atondoan).